

## IRABAZI-ITURRIAK

Proiektua martxan jarri ahal izateko bazkide bakoitzak 6000€-ko inbertsioa egin behar izango dugu, horrela hasierako kapitala 30000€-koa izango da. Hasierako inbertsioa handia izan arren, gure produktua gauzatzeko beharrezkoa izango da eta Save The Children erakundeari donazioak egiteko erabiliko dugu. Hala eta guztiz ere, merkatu masiboari erreparatuz, irabaziak lortuko ditugula uste dugu. Gainera, Tolosaldea garatzen zein Eusko Jaularitzak eskaintzen dituzten laguntza ekonomikoak eta publizitarioak ere aurrera egiten lagunduko digute.

Biltegiari dagokionez, ez digu gasturik suposatuko, hasieran behintzat Iraitzek Berastegin kokatutako biltegi bat erabiliko dugu, ez dio biltegiari orain erabilpenik ematen eta hutsik dagonez, produktuak bertan eduki ditzakegu.




**Tolosaldea**  
garatzen



Gure diru sarrera nagusia aktiboen salmenta izango da, aktiboa gurpilak dira (neumatikoa + haguna). Produktuek prezio finkoa izango dute eta hauen balioa baliabideen, produkzioaren, kalitatearen eta langileen arabera ondorioztatuko dugu. Produktuen salmentak irabazien %90 emango digu.

Bestetik, hainbat ibilgailuen enpresei publizitatea eginez irabazien %10a lortuko dugu. Hala nola, Tolosako [Begiristain Txirrinduak](#) eta [Autowag Tolosa](#).



**BEGIRISTAIN  
TXIRRINDUAK**

Hona hemen gure diru sarrera nagusien taulak produktuen arabera:

### [PRODUKTUEN PREZIOA](#)

Hala ere, produktuak eta prezioak [webgunean](#) ikusgai daude.